



Eman hegoak euskarari



Faulknerrekin hegan

Faulkner irakurri ahala, irakurlea bere nobela propioa marrazten doa buruan

ARITZ GORROTXATEGI

A manece que no es poco' pelikulan kargu hartzen diote idazlegai bati Faulknerren 'Light in August' eleberria plagiatu duelako. Beste edozein plagia zezakeen, baina kaporalak garbi esaten dion bezala, herri hartan Faulknerrenganako benetako debozioa dute, eta onartezina da halakorik egitea. Izan ere, luzea da Faulknerren itzala. Fikzio zinematografikora heltzeaz gain, noski, eragin hedakorra izan zuen literaturaren esparruan garai batean, bereziki Hego Amerikako boomean. Mundu mailan ere sona handia izan zuten haren lanek. Sinbolismoz betetako estilo liriko, bihurri eta eliptiko baten jabe zen, koskaz bete ia beti. Faulkner irakurtzeko esperientzia ez da

erraza lehen kolpean, baina apur bat saiatuz gero, ez dira nolanhikoak haren irakurketatik atera daitezkeen fruituak. Idazle experimental eta berritzailea zen, eta, aldi berean, iturri klasikoetatik edaten zuen: Biblia, Shakespeare, Dickens... Teknika ezberdinak erabiltzen zituen, ikuspegi ezberdinak, denbora-jauziak, han-hemenka xehetasun sotilak utziz, eta bat-batean xehetasun horiek sekulako garrantzia hartzen dute istorioetan; are gehiago, edo dena argitzen dute, edo dena iluntzen. Faulkner irakurri ahala, irakurlea bere nobela propioa marrazten doa buruan, baina xehetasun horietako batek beste nobela bat jartzen dio begien aurrean, beste aukera bat proposatzen dio. Gerta li-

teke, gainera, Faulknerren uni-bertso ilun eta anbiguoan galtzea ere. Baina, tira, ez da ezer gertatzen noizean behin bidea galtzeagatik.

AEBetako hegoalde sakoneko alegiazko konderrri batean girotu zituen Faulknerrek bere nobelarik ezagunenak, Yoknapatawpha-n alegia, Mississippi ibaiaren ipar-mendebaldean alegia. Han sortu ziren, besteak beste, 'Hotsa eta ardaila' (Asun Garikanok itzulia), 'Absalom! Absalom!', 'As I Lay Dying', 'Santutegia' (Xabier Olarrak itzulia) edota 'Go Down Moses'. Borge-sek, esaterako, 'The Wild Palms' ekarri zuen gaztelarera 1940an, jatorrizko bertsoa kaleratu eta urtebetera. Gaztelan egiten zen idazle estatubatuarren bigarren itzulpena

zen. Lehena, Lino Novás Calvori zor diogu, 'Santuari' itzuli baitzuen Espasa Calpérentzat, 1933an. 1949an, Literatura Nobel Saria jaso zuen Faulknerrek, eta hortik aurrera, beste hainbat sari etorri ziren: National Book Award-a bitan eta Pulitzer Saria ere beste bitan.

Hala ere, bitxiki, Faulknerren lehen nobela 'Soldiers' Pay' izan zen, Lehen Mundu Gerran girotua. Hainbat ipuin girotu zituen testuinguru horretan, baita 'A Fable' eleberria ere. Eskola utzi berria zuen gerra piztu zenean, eta pilotu izatearekin amets egiten zuen. 1918an Britainia Handiko Errege Aire Indarrean izena eman, eta Kanada bidali zuten entrenamendu ikastaro batera. Hala ere, lehen hegaldia egiteko aukera izan aurretik amaitu zen gerra. Pilotu uniformearekin itzuli zen sorterrira, britainiar azentuarrekin eta herren arin batekin. Lagunei esan zien abiazio istripu batean egin zuela, eta garezurrean metalezko xafla bat jarri ziotela. Urteetan eutsi zion pilotu ibili izanaren kondaira horri, eta ezaguna egin zenean

baino ez zuen aitortu gezurra zela, arazoak saihesteko. Neurri handi batean, esan daiteke gezur horri esker bihurtu zela gerora fikziozko idazle. Izan ere, gezur bat burutsua bada eta modu sinesgarrian kontatua badago, egiaren gainetik egoterra hel daiteke. Nolanahi ere, inoiz ez zuen burutik kendu pilotu izatearena. 1933an, hegaldi lezioak hartu zituen, bere hegazkin propioa erosi zuen, eta, bolada batez, aireko akrobazien zirku-konpainia bat ere zuzendu zuen. Gaiari 'Pylon' izeneko eleberria eskaini zion, aireko ikuskizunak egiten dabilzan pilotu batzuen gorabeherak ardatz hartuta eta Yoknapatawphatik kanpo girotua.

Faulknerren azken nobelak, 'A fable' edo 'The Reivers' (gaztelaniaz, berriki, 'La escapada' itzuli dute azken hau, nahiz garai batean 'Los rateros' izenburuz ezaguna izan) egokiak dira oso idazle estatubatuarren unibertsoan sartzeko, baita 'Abuztuko argia' eleberria edo haren ipuinak ere. Eta, hortik aurrera, erabaki ausartagoak har daitezke, eta gorago igo.

Gozamen futurista

JON MARTIN-ETXEBESTE

Etorkizun hurbilean kokatu du Katixa Agirrek bere azken eleberria. Zientzia fikzioaren osagaiak nahastu ditu generoenekin, modu dokumentatu eta sinesgarrian nahastu ere. Betaurreko futuristen bidez, iraganen gertatutakoa birsortzea eta bizitzeko posible da etorkizuneko biztanleentzat; eta halako modulu pedagogikoak sortzea da Paula Pagaldai protagonistaren lana. Aspaldiko partez, sendiarengandik fisikoki urrundu, eta Parisen bertaratuko da protagonista. Bere harreman sentimentalean lehendik zeuden arrakalak handitu egingo dira bidaia inizatiko horretan. Teknologia bizitza errazteko eta bizipenak areagotzeko aukerak eskaintzen ditu, baina aldi berean gizakia bere berezko izatetik, naturatik eta harremanetatik banatzen du. Teknologiaren arriskuak eta potentzialak gogoeta interesgarria da honakoa; lan ausarta eta originala.



BERRIZ ZENTAURO
KATIXA AGIRRE
Elkar. 224 orr. 22 euro

Plazeraren bilaketa da kontakizunaren ardatza. Alde batetik, gozamen fisikoa: puntako teknologiaz hornitutako neoprenoak eskaintzen diona. Beste alde batetik, eta bereziki, fantasia erotikoak eragiten dion gozamena. Emakume gorputza utzi eta gizonarena hartzeko aukera birtualak boterearekin esperimentatzeko aukera ematen dio. Esplorazio horretan bere buruaren ezagutza sakonagoa lortuko du Paulak. Generoen arteko mugen lausotzearen hurrengo kapitulua irudikatzen du. Amaierako orrialdeetan kontrakulturak proposatzen duen drogen bidezko autoezagutzari keinua ere egiten dio. Errealitate hedatuaren sortzailer da protagonista, eta lagun imaginario moduko bat izango du bidaide: Mary Wollstonecraft. Haren bizitzaren esplorazioak eragingo dio aurrera istorioari. Kontaketa, beraz, iraganeko pertsonaia bati buruz orainean egiten du protagonistak eta aldi berean irakurlearen etorkizuneko garai batean kokatuta. Aldi berean, protagonistaren bizitza erreala, hologramek emandako informazio hedatua, eta lagun imaginarioa txirikordatzen ditu Agirrek. Erreala, birtuala eta irudimenak sorrarazia; gorputz berean oro.

Literaturari buruz

ARANTXA URRETABIZKAIA



Norbaitek gonbidatu zaitu literaturaren inguruko ekitaldi batera, eta baiezkoa eman duzu. Demagun udazkeneko ilunabar epel batean suertatu dela hitzordua. Bertaratzeko unean ikusten duzu kaleak jendez josiak daudela, autoz nahiz oinez etorriak. Pertsona ugari batetik bestera, askok eskuetan erosketak poltsak dituztela. Nor etorriko da literaturari buruzko hitzaldi honetara, galdetzen diozu zeure buruari kalean dagoen giroa ikusita?

Beste adibide bat. Eguerdia hurbil dago, maiatzaren bukaerako larunbat batean, eguraldiak, udaberri euritsuaren ondoren, uda oihukatzen duenean, Gipuzkoako kostako hiri batean. Uzten duzu autoa parkingean eta hitzordurako norabidean zoazela, jendea barra-barra hondartzara doala ikusten duzu, pozik,

itxialdi luze baten irteera zabaldu zaiela ikusita. Antzeko galdera: nor etorriko da literaturaz euskaraz hitz egingo dutenei entzutera?

Bi kasutan, erantzun bera: aretoa biterik. Mirari bat ala azaleratzen ez den errealitatea? Biak batera, seguruenik. Gizartea aztertzerakoan gutxitan aipatzen ditugu hitzaldi horietara doazen pertsonak. Esango dugu jendeak hondartza egarria duela edo erosteko grina edozeri gailentzen zaiola. Ez zaizkigu ahaztuko etxean telebistari begira dau-denak edo futbol partida bat ikustera doazenak.

Zalantzarik gabe, literatura, gaur egun, gutxiri asko interesatzen zaion zerbait da, eta gehiengoari batere ez. Errealitate hori ez dago beti literaturaren munduan gabiltzanontzat, baina horrela da. Pertsonak, pertsona izateko, istorioak kontatu eta entzuteko premia du, pitin bat puztuz, esan daiteke horrek egiten gaituela pertsona. Baina aspaldian galdu zuen literaturak lehentasuna esparru horretan.

Egoera horren aurrean, niri gauza bakarra bururatzen zait: esker mila irakurleei eta milioi bat esker literaturari buruzko ekitaldietara hurbiltzen direnei.

SALDUENAK

FIKZIOA

1 Azken Etxea

Arantxa Urretabizkaia. Pamiela

2 M. Ama Eme Ume

Estitxu Fernandez/Erika Lagoma. Elkar

3 Miñan

Amets Arzallus/Ibrahima Balde. Susa

4 Desertuan behatxuloa

Anjel Lertxundi. Alberdania

EZ FIKZIOA

1 Gureak ere badira

Lur Albizu/Eraiz Saez de Egilaz. Txalaparta

2 Barbaroak eta zibilizatuak

Ibai Atutxa. Txalaparta

3 Autobiografia bat

Assata Shakur. Katakark

4 Barbaroak eta zibilizatuak

Ibai Atutxa. Txalaparta